



MERKATARITZA KUDEAKETAKO PLATAFORMA ALDATZEKO GARAPENAK DISEINATZEKO ETA EGIAZTATZEKO LAGUNTZA TEKNIKOKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO BALDINTZA BEREZIEN PLEGUAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZK.: 3263

Harmonizatuko araubidearen menpe dagoen kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	Unai Lerma Menchaca
4.- Kontratazio-ko Zuzendariordetzako harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak eta teknikoak: telefono-zk.:94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.eus www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: Laguntza-zerbitzua ematea, egungo Partzuergoko datu-base komertziala (SIGA) orbitatzen duten aplikazioen unibertsoaren eta haren ordezkoko Billing One (BONE) aplikazio berriaren aplikazioen arteko aldaketa behar bezala egokitu edo kudeatu ahal izateko. Xedeak hauek hartzen ditu barne: konponbideak diseinatzeko analisi-lanak eta ezarritakoaren funtzionamendu egokia egiaztatzeari buruzko lanak.

2.- Bete beharreko premiak Egin eta dokumentatu beharreko analisiak urrutiko irakurketa-prozesu osoa hartu beharko du, kontagailu-marka desberdinak instalatzeko erabakia hartetik hasi (gai horretan SIGA argi eta garbi defizitariora da, eta oso partzialki ebatzita geratu da Acces eta Excel edo Visual Basic sistemetan egiten diren kontrol-aplikazioen bidez), bezero bakoitzaren ordu-irakurketak eskuratzearaino eta irakurketak lortzeko inplikaturako prozesu guztietaraino: ☐ Instalatu beharreko (edo instalaturako) kontagailuen markak kontrolatzea. Instalazio-agindu bakoitzetik lortzen den informazioa ezagutzea eta kontrolatzea, eta informazio horren koherentzia bermatzea, bai kontagailuari berari dagokionez (instalazio-datak, fabrikazio-urtea, serie-zenbakia, marka, kalibrea...), bai hari atxikitako irrati-maiztasuneko moduluari dagokionez (serie-zenbakia). ☐ Bidali beharreko informazioa, komunikazio-hornitzaileak tresna horiei bere komunikazio-sarean alta emateko aukera izan dezan. ☐ Komunikazio-hornitzaileak bidaltzen dituen ordutegi-irakurketei (eta alarma potentzial gisako beste batzuei) buruzko informazioa sartzea.

3.- Lotetan banatzea: ☐ Bai ☒ Ez

Lotetan banatu ez izanaren justifikazioa: Oker egongo litzateke adjudikaziodun posibleen artean banatzea iritzia emateko eta programa-geruzak edo azpiprozesuak funtzionatu behar duen moduan laguntzeko erantzukizuna, urrutiko laguntzako informazioa osorik lortzeko prozesuaren funtzionamendu egokia arriskuan jartzeko arriskua baitago. Era berean, ezinezkoa izango litzateke aplikazio berria abian jarri ondoren funtzionamendu egokia egiaztatzen saiatzea edo arazoak konpontzen laguntzea, sistemaren diseinuan aktiboki parte



B.- KONTRATUAREN XEDEA

hartu ez bada.

4.- CPV: 71356200-0– Laguntza teknikoko zerbitzuak

5.-Aldagaiak edo alternatibak onartzea:

☐BAI ☒EZ

6.- Izaera juridikoa:

☒ Administratiboa ☐ Pribatua

C.-KONTRATUAREN PREZIOA

1.-Lizitazio-aurrekontua
(BEZik gabe)

EHUN ETA HOGETA HAMALAU MILA EURO
(134.400,00 €), BEZik GABE.

2.-Kontratuaren balio zenbatetsia: 201.600,00 euro

Sortak: ☐ BAI ☒ EZ

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Honenbesteko prezioa ☒ Unitate-prezioak

4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-esleipena:

Kontratuaren urteko aurrekontuak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa hauek dira:
92501 22799.

- 2026. urtea: 112.000 euro gehi BEZa.

- 2027. urtea: 22.400 euro gehi BEZa.

5.-Prezioak berrikustea:

☐ BAI ☒ Ez

6.-Kanpoko funtsekin finantzatzea:

☐ BAI ☒EZ

7.- Ordaintzeko modua: Arrunta, hileko ziurtagiri bidez.

8.- Ordainketak kontura: Ez da aplikatu behar.

D.-KONTRATUAREN EPEA

1.-Iraupen osoa: URTE (1) BAT

2.- Epe partzialak.

☐BAI ☒EZ

3.- Luzapena

☒BAI ☐EZ

SEI (6) HILABETEKO luzapen bat

4.- Berme-epea: Ez da aplikatu behar

5.-Kontratua betetzeko tokia: BBUPren instalazioak

6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:



F.-KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren urteko batez besteko kuota bezainbeste izan beharko da gutxienez behin. (134.400,00 €)

G.-KAUDIMEN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA

Kaudimen teknika edo profesionala egiaztatzeko, azken hiru urteetan kontratuaren xedearen antzeko izaera duten zerbitzuen zerrenda aurkeztu beharko da, eta gauzatze handieneko urtean haien zenbateko metatua urteko kontratuaren urteko bestez besteko kopuruaren % 70 edo gehiago izango da: (94.080,00 €).

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknika:

Kaudimenean eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietarako. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.

LANBIDE-GAIKUNTZA

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, hautazkoa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen arabera irizpideen dokumentazioa.

3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentazioa.

BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Irizpide teknikoak baloratzeko beharrezkoa dena. Balorazio hori bereiz egin beharko da, kaudimena badagoela egiaztatu ondoren balorazio hori egin ahal izateko.

Irizpide teknikoak baloratzeko dokumentazioa bereizita identifikatu beharko da, eta gehienez hamar orrialde onartuko dira, ezaugarri hauekin:

- Tamaina: DIN-A4.
- Letra-mota eta gutxieneko tamaina: ARIAL, 10 puntu.
- Gutxieneko lerroarte: 1,5 puntu.
- Gutxieneko goiko eta beheko marjinak: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjinak: 2 cm.

Gehieneko orrialde-kopurua zenbatzen denean, aurkibidea 10 orrialdeen barnean zenbatuko da. Azala eta kontrazala ez dira zenbatuko.

Lehenengo hamarrak gainditzen dituzten orrialdeak ez dira kontuan hartuko.

Taldearen kualifikazioa curriculumak eta ziurtagiriak aurkeztuta egiaztatuko da.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da l. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Prezioen zerrenda: Orduko unitate-prezioa eskainiko da, kontratua gauzatzeko konpromisoa hartzen duena, urtean 1.920 orduko zenbatespenari aplikatuta, eta prezio hau izango du:

(«Eskaintako prezioa orduko» * 1.920h) euro/urte,

Horregatik, orduko 70 euroko edo gutxiagoko prezioa ezarrita egin behar da eskaintza.

Urtean aurreikusitako orduak	Orduko eskaintako prezioa	Guztira
1920		

I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

- 1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa
 - 2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-baldintza berezien pleguaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):
 - 3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ
- Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
<https://contratacion.consortiodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

☒ Kontratazio-mahaia

Presidenteak:
Ekaitz Menthaka Corral jauna.

Mahaikideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.
Xabier Orue Moro jauna.
Itziar Zarate Urrutia andrea.
Gerardo Latorre Pedret jauna.
Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

1.- Adjudikazio-irizpideak:

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATU DAITEZKEEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren baja-ehunekorekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira honela:

Bmax	50 puntu
(Bmax + BM) / 2	48 puntu
BM	47 puntu
0,8 x BM	46 puntu
0,6 x BM	44 puntu
Lizitazio-aurrekontua	0 puntu

Argibideak:

- Bi: Eskaintzaren baja-ehunekoa, hau da, lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko diferentziaren emaitza lizitazio-aurrekontuaren artean zatituta eta ehunekotan adierazita.
- Bmax: Gehieneko baja-ehunekoa, eskaintza ekonomikoenari dagokiona.
- BM: Batez besteko baja-ehunekoa. Hau da, lizitatzailer bakoitzaren baja-ehunekoen batez besteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa eskuratzeko linealki interpolatuko da aurretik azaldu den puntuen banaketa.

Modu horretan, Bi bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honi dagokiona da:

Baldin eta $0 < Bi \leq 0,6 \times BM$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BM} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BM < Bi \leq 0,8 \times BM$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BM)}{0,2 \times BM} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BM < Bi \leq BM$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BM)}{0,2 \times BM}$$

Baldin eta $BM < Bi \leq (BM + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BM)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

Baldin eta $(BM + Bmax) / 2 < Bi \leq Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BM - Bmax)}{(Bmax - BM)} \times 2$$

BALIO-JUDIZIOEN ARABERAKO IRIZPIDEAK 50 PUNTU

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Memoria teknikoa eta gauzatze-metodologia..... 18 puntu
 - Lanak gauzatzeko jarraitu beharreko metodologia eta planteatutako beharra konpontzeko duen eraginkortasuna.
 - Metodologia BBUPren inguruabar eta behar berrietara egokitzeko prestasuna eta malgutasuna.
- Kontraturako eskuragarri jarritako bitarteko teknikoak..... 32 puntu

Baldintza teknikoen pleguaren eta kontratua gauzatzean ezarritako betekizunen arabera eskatutako gutxieneko esperientzia baino handiagoa duten teknikariak baloratuko dira.

Kontagailuen eta irrati-irakurketako moduluen marka hauek (40mila unitate baino gehiagotan) dituzten teknikarien esperientzia baloratuko da:

- Honeywell S-220 eta RF Merlin HB-G3 modulua
- Itrón Aquadis eta RF Cyble 5 modulua
- Diehl Altair V4 eta RF HRL modulua C-G3 edo c-G4
- Siconia Water WM (modulu txertatuarekin), WMBus & LoraWan bertsioa

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak aurkezteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizarteratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresa bakoitzaren plantillako aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada.

3.- Ohi baino baxuagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino baxuagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzailerik bakarria dagoenean eta lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiago denean.
- Bi lizitatzailerik izanik, beste eskaintzaren aldean % 20 baino txikiagoa denean.
- Hiru lizitatzailerik izanik, egindako eskaintzen batez besteko aritmetikoaren aldean % 10 baino txikiagoak direnean. Hala eta guztiz ere, batez bestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena alde batera utziko da, batez bestekoa kontuan hartuta % 10 baino handiagoa bada, eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokotzat joko da % 25 unitatetik gorako beherapena.
- Lau lizitatzailerik edo gehiago daudenean aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoa direnean. Dena den, horien artean batez bestekoa % 10 unitatetan baino gehiagotan gainditzen duten eskaintzak badaude, batezbesteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarria izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenekin kalkulatu da.



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Talde bereko enpresen eskaintzak aurkezten badira, baxuegiak izateagatik susmagarriak diren eskaintzak identifikatzeko araubidean, bakar-bakarrik hartuko da kontuan eskaintzarik baxuena, eskaintza banaka edo taldekoak ez diren, baina aldi baterako elkarte gisa jarduten duten beste enpresa edo enpresekin batera aurkeztea gorabehera.

4.- Lizitatzailleak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezkoa den gutxieneko atalasea:

Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitakoak.

M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

Baldintza tekniko berezien pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Arrisku profesionalengatiko erantzukizun-asegurua baduela egiaztatzen duen ziurtagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Ez da aplikatu behar

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

- ☒ Hasierako ekarpenaren betebeharra
- ☐ Azpikontratazioaren mugak

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

- ☒ BAI
- ☐ EZ



KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZAK

Laguntza profesionala behar da, mahai gaineko, webguneko eta mugikortasuneko aplikazioen diseinuan, analisian eta funtzionaltasunean ezagutza aditua duena, datu-base erlazionalekin eta ez-erlazionalekin lotuta, bai ingurune zentralizatueta, bai banatueta.

Ondorioz, laguntza teknikoko zerbitzua emango duten aholkulari edo aholkulariek profil honi erantzun beharko diote nahitaez:

- Ingeniaritza informatikoko goi-mailako gradua eta proiektuen kudeaketan eta scrum-metodologiaren aplikazioan hamar urtetik gorako esperientzia.
- Tresnerietarako proiektuetan gutxienez hiru urteko esperientzia, baita tresneria horren esparruan merkataritza-kudeaketako sistemak garatzen edo ezartzen esperientzia espezifiko ere.
- Gutxienez sei hilabeteko esperientzia urrutiko lanketa-kontagailuen instalazioa kudeatzen eta ekipo horien informazioa datu-basean sartzen, ordutegi-maiztasuneko irakurketa-indizeak barne.

Era berean, baldintza teknikoen pleguan ezarritakoaren arabera, laguntza teknikoko zerbitzua Bilboko Albia eraikineko Ur Partzuergoaren bulegoetan aurrez aurre ematea eskatzen da, gutxienez astean egun batez.

Betebehar horiek funtsezko kontratu-betebehartzat hartzen dira, eta, beraz, betebehar horiek ez betetzeak kontratua deuseztatzea ekar dezake, Ur Partzuergoaren irizpide eskusiboaren arabera egoera hori justifikatzea ahalbidetzen duen arrazoi nahikoa dagoenean izan ezik.

KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Enpresak BBUPrekiko solaskidea izendatu beharko du. Hala, hornitutako kontagailuetatik etor daitezkeen arazoak edo kontagailuen funtzionamendu txarra konpontze aldera, solaskideak eguneroko harremana izango du Bezeroekiko Harremanen Sailarekin.